
Turismoa karbono-igorpen globalaren % 8aren erantzulea da



Turismo globalaren aztarna ekologikoa uste baino askoz ere handiagoa dela ikusi dute.

Lehenengo aldiz, turismoaren aztarna ekologiko osoa neurtu dute, eta emaitza oso esanguratsuak atera dituzte: karbono-isurtze globalaren % 8 dagoiko turismoari. Orain arte, Turismoaren Munduko Erakundeak uste zuen % 4ra baino ez zela iristen, baina Sydneyko Unibertsitateak egindako ikerketa berriak agerian utzi du eragina uste baino askoz ere handiagoa dela. Horretarako, lehen ez bezala, turismoaren bizi-ziklo osoaren ebaluazioa egin dute, turista bat etxetik atera eta itzultzen den arte eragindako karbono-igorpen guztiak hartu baitira kontuan: hegazkina, ostatua, alokairuzko kotxea, jana eta edariak, oroigarriak eta abar.

Nature Climate Change aldizkarian argitaratu dute ikerketa eta proposamen zehatzak egin dituzte zientzialariek klima-aldaketaren aurkako neurriak hartu ahal izateko: turismoari karbonoaren gaineko zergak ezartzea, batez ere hegazkin-bidaiei. 0,25-0,5 kg CO₂ sortzen dute bidaiari eta kilometro bakoitzeko, eta 900 km-ko joan eta etorriko bidai batean 40 €-ko zerga ordaindu beharko litzatekeela kalkulatu dute. Argi adierazi dute ikertzaileek: gutxiago egin beharko genuke hegan eta gehiago ordaindu. ●

Beldurraren biokimika, zizareetatik gizakietara

Beldurraren eta antsietatearen mekanismoak ikeritzeko bizidun mikroskopiko bat erabiltzen ari dira: *Caenorhabditis elegans* zizarea. Bere predatzaile naturalak jariatzen dituen sulfolipidoak lurtean jartzen dizkiotenean, *C. elegans*-ek bere burua babesteko jokaera hartzen du: sulfolipidoak sumatu eta berehala, norabidea aldatzen du, zakarki, eta arrautzak jartzeari uzten dio. Jariakin horien presentzia hutsak [lau zirkuitu neuronal aktibatzen dituela ikusi dute](#) Salk Institutuko ikertzaileek, eta adierazi dute beldurra hain mekanismo errudimentarioa eta oinarritzkoa izanik, eragiten duen erantzun neuronala oso antzekoa dela zizare eta gizakietan.



C. elegans zizare mikroskopikoa. ARG.: Flickr.

Giza antsietatearen aurkako Zoloft botika eman dietenean, zizareek ez dute beldurrik erakutsi sulfolipidoen aurrean. Botikak haiengan duen eragina ikusita, badirudi beldurraren aurkako erantzun neuronalak mantendu egin direla eboluzioan. Zizareen nerbio-sisteman beldurrarekin erlaziozuzenak seinaleak identifikatu izanak antsietatearen mekanismoak eta izaera hobeto ulertzen lagunduko duelako itxaropena dute ikertzaileek. ●